

## ATZERRIKO BIGARREN HIZKUNTZA

Egungo gizartearen bilakaera azkarrak eta haien arteko lotura ugariak eskatzen dute gizabanakoei herri-tartasun independentea, aktiboa eta gero eta globalagoa, kulturartekoagoa eta eleaniztunagoa den errealitate garaikidearekiko konprometitu praktikan jartzen lagunduko dieten konpetentziak garatzea. Horrela, zenbait hizkuntzatan komunikatzea funtsezkoa da kultura demokratiko eta aktiboki parte-hartzaile hori garatzeko. Hezkuntzaren Europako Esparru baten ideian, hizkuntza batean baino gehiagotan komunikatzeak eragotzi egiten du mugek hezkuntza eta prestakuntza oztopatzea, eta nazioartekotzea eta mugikortasuna bultzatzen ditu, beste kultura batzuk ezagutzeko aukera emateaz gain. Horrek ikasleen ikuspegiak zabaltzen ditu. Hori da, hain zuzen ere, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako etapan atzerriko bigarren hizkuntza baten ikaskuntza sartzeko helburua. Hori, gure autonomia-erkidegoan, beste batzuetan ez bezala, gehitu egiten zaio bi hizkuntza koofizialen eta atzerriko lehen hizkuntzaren irakas-kuntzari.

Atzerriko Bigarren Hizkuntza jakintzagaiaren eskaintzak zuzenean laguntzen du ikasleen hizkuntza-konpetentzia, konpetentzia eleaniztuna eta kulturarteko konpetentzia hobetzen, baita hizkuntzarekin, komunikazioarekin eta zentzu kritikoarekin lotutako gaitasunak garatzen ere, aniztasun linguistikoa, artistikoa eta kulturala baloratuz eta errespetatuz, eta horien erabilera egokiak eta desegokiak (diskriminatzaileak izateagatik) identifikatuz. Jakintzagai honek, era berean, ikasleei aukera ematen die ingurune digitaletan hobeto moldatzeko eta atzerriko hizkuntzaren bitartez bideratutako kulturak ezagutzeko, bai prestatzeko eta ikasteko eragile gisa, bai informazio- eta atsegin-iturri gisa. Horregatik, jakintzagai honetan oso ikaste-elementu garrantzitsuak dira pentsamendu kritikoa garatzea, informazioaren arloan alfabetatzea eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiak egoki, segurtasunez, etikaz eta arduraz erabiltzea. Ondorioz, hizkuntza-konpetentzia eta konpetentzia eleaniztuna lortzen ez ezik, Atzerriko Bigarren Hizkuntza jakintzagaiak lagundu egiten du DBH amaitzean ikasleek funtsezko konpetentziak garatzen eta eskuratzen ere.

Jakintzagai honek ikasleei aukera ematen die beren hizkuntza-errepertorio indibiduala zabaltzeko, norberaren esperientziak baliatuz komunikazioa hobetzeko, bai familia-hizkuntzetan, bai EAEko hizkuntza koofizialean, bai atzerriko hizkuntzetan. Bestalde, hizkuntzak ikastearen oinarritzko helburua da etapa bakoitzeko komunikazio-egoerarako egokiak izango diren askotariko testuak ulertzeko eta sortzeko gaitasuna garatzea, koherentziaz, kohesionatuta eta zuzen. Hizkuntza erabiltzen ikastea, halaber, arazoak aztertzen eta ebazten ikastea da, baita planak egiten eta erabaki-prozesuei ekiten ikastea eta komunikazio-egoera bakoitzean egokiak izango diren estrategiak erabiltzen ikastea ere. Horrenbestez, edukia eta hizkuntza integratu beharko dira, eta, ildo horretatik, diziplinarteko lana, ikas-egoeren bidez planteatua, ezinbestekoa da ikasleek jakintzagai bakoitzaren berezko diskurtso-generoak bereganatu ditzaten.

Curriculum hau erabat konpetentziala denez, Atzerriko Hizkuntzaren curriculumean planteatutako sei konpetentzia espezifikotan oinarrituta diseinatu da. Konpetentzia horiek bildu egiten dituzte ulermen, produkzio, interakzio eta bitartekotzako komunikazio-jarduerekin lotutako alderdiak, baita eleaniztasunarekin eta kulturartekotasunarekin lotutakoak ere.

Bestalde, oinarrizko ezagutzak hiru multzotan egituratzen dira. *Komunikazioa* multzoan ulermen, produkzio, interakzio eta bitartekotzako komunikazio-jarduerak garatzeko abian jarri behar diren jakintzak —informazio-iturriak bilatzearekin eta kontsultatutako iturriak kudeatzearekin lotutakoak konpetentzia barne— biltzen dira. *Eleaniztasuna* multzoak hizkuntzen funtzionamenduari buruz gogoeta egiteko gaitasunarekin lotutako jakintzak biltzen ditu, eta helburu du atzerriko hizkuntza ikasten eta ikasleen hizkuntza-errepertorioa osatzen duten hizkuntzak hobetzen laguntzea. Azkenik, *Kulturartekotasuna* multzoan biltzen dira atzerriko hizkuntzaren bitartez bideratutako kulturei buruzko jakintzak eta horien balorazioa, aberasteko eta besteekiko harremanetarako aukera gisa. Multzo honetan sartzen dira, halaber, beste hizkuntza, hizkuntza-aldaera eta kultura batzuk ulertzeko eta balioesteko interes-jarrerak garatzera bideratutako jakintzak.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako etapan, Atzerriko Bigarren Hizkuntza jakintzagai lehenengo hiru mailetan nahitaez eskaini beharreko aukerako jakintzagaia da, eta laugarren mailan aukerako jakintzagaia. Hala eta guztiz ere, jakintzagai hau egiten ari diren ikasleak lehenago, Lehen Hezkuntzan, berau ikasten hasiak izan daitezke. Horregatik, Atzerriko Bigarren Hizkuntza jakintzagairako curriculumak malgua izan behar du, ikasleek izan dezaketen maila-aniztasunera egokitze bezain malgua, etapako edozein mailatan jakintzagai hau ikasten hasteko eta amaitzeko aukera baitute.

Hala, Atzerriko Bigarren Hizkuntza jakintzagaian, maila bakoitzeko konpetentziak, jakintzak eta ebaluazio-irizpideak ikasleen abiapuntuko mailen arabera dira. Ebaluazioak, funtsean, kontuan hartu behar ditu ikasle bakoitzak abiapuntuko egoeraren arabera eskuratutako lorpenak. Hori aintzat hartuta, ebaluazio-irizpideak erreferente gisa erabili behar dira, bai ikasleen abiapuntua hautemateko, bai amaierako maila ebaluatzeko; horrela, ikasleek banaka izan duten aurrerapen-maila ezartzen laguntzeko. Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratua (EEMB) erreferentzia da jakintzagaiaren curriculum-elementuak garatzeko eta berdintzeko. Dena den, elementu horiek egokituta egon behar dute Bigarren Hezkuntzako etapako ikasleen heldutasunera eta garapen psikoebolutibora.

EEMBK planteatzen duen ekintzara bideratutako ikuspegiarekin bat etorritik —metodologia eklektikoak erabiltzea sustatzen du—, curriculum honen izaera konpetentzialak irakasleak diziplinarteko zereginak sortzera bultzatzen ditu, testuinguruan kokatuak, esanguratsuak eta garrantzitsuak, ahal den neurrian hizkuntzen tratamendu integratua kontuan hartuko dutenak, eta atzerriko hizkuntzaren ikaskuntza, irakaskuntza eta ebaluazioa indartzeko tresna digitalak erabiltzera. Ikasleak eragile sozial arian-arian autonomoagotzat eta beren ikaste-prozesuarekiko gero eta ardura handiagokotzat hartuko dira. Horrek berekin dakar haien errepertorioak, interesak eta emozioak kontuan hartzea, baita beren inguruabar espezifikoak ere, bizitza osoan zehar ikasteko oinarriak ezartzeko amoz. Europako programen esparruko kolaborazio-proiektu transnazionalak sar daitezke, europar herritartasun demokratikoa eraikitzen laguntzeko, aurreiritzirik gabeko parte-hartze aktibo eta errearen bidez.

## KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK

1. Oinarrizko diskurtso-generoetako eta eguneroko erabilerako testu labur eta errazak, argiro eta hizkuntza estandarrean adierazitakoak, ulertzea eta interpretatzea, iturri fidagarriak bilatuz eta zenbait estrategia erabiliz, adibidez, esanahien inferentzia, zentzu orokorra eta ideia nagusiak ateratzeko eta komunikazio-egoera zehatzetan haien edukia baloratzeko.

Ulertzeak informazioa jasotzea eta prozesatzea dakar. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako etapan, eta zehazkiago Atzerriko Bigarren Hizkuntzari dagokionez, ulermena komunikazio-trebetasun bat da, eta argiro eta hizkuntza estandarrean adierazitako ahozko, idatzizko eta testu multimodal labur eta errazetan oinarrituta garatu behar da. Eguneroko gaiak eta garrantzi pertsonalekoak jorratuko dira. Ulermenak, maila honetan, testuak ulertzea eta interpretatzea eskatzen du, baita horien zentzu orokorra eta xehetasun garrantzitsuenak ateratzea ere, ikasleen komunikazio-premiei erantzuteko. Horretarako, ikasleen garapen psikoebolutiborako eta beharretarako estrategia egokienak abiarazi behar dira, testuaren esanahiaren eta zentzuaren irudikapena berreraikitze eta testu horren azpian dagoen komunikazio-as-

moari buruzko hipotesiak formulatzeko. Ikasleentzat erabilgarrienak diren ulermen-estrategien artean daude esanahiak inferitzea eta komunikazio-testuinguru berrietara estrapolatzea, eta haien hizkuntza-errepertorioa osatzen duten hizkuntzen ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak transferitzea eta integrazioa. Formatu multimodalean, ulermenak hainbat irudikapen-modu interpretatzea barne hartzen du (idazketa, irudia, grafikoak, taulak, diagramak, soinua, keinuak, etab.), baita testuinguru-informazioa (elementu estralinguistikoak) eta informazio kotestuala ere (elementu linguistikoak). Horiek bidea ematen dute testuaren asmoari eta zentzuari buruzko hasierako hipotesia egiaztatzeko, baita hipotesi alternatiiboak planteatzeko ere, beharrezkoa izanez gero.

Estrategia horiez gain, iturri fidagarriak euskarri analogiko zein digitaletan bilatzea, kritikoki analizatzea eta hautatzea oso metodo erabilgarria da ulermenerako, informazioa kontrastatu, baliozkotu eta sostengatzeko aukera ematen baitu, baita testuetatik abiatuta ondorio garrantzitsuak ateratzeko ere. Ulermen- eta interpretazio-prozesuek komunikazio-testuinguru dialogikoak behar dituzte, kolaborazioa sustatzeko eta edozein motatako aurreiritziak eta estereotipoak kritikoki identifikatzeko, baita desberdintasun eta antzekotasun etniko-kulturalekiko benetako interesa pizteko ere.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK3, KE2, STEM4, KD1, KPSII5 eta KAKK2.

2. Oinarrizko diskurtso-generoko eta eguneroko erabilerako testu originalak sortzea, laburrak, errazak eta antolaketa argikoak, planifikazioa, konpentsazioa edo autokonponketa gisako estrategiak erabiliz, betiere mezu garrantzitsuak egokitasunez eta koherentziaz adierazteko eta komunikazio-helburu zehatzei erantzuteko.

Produkzioak bai ahozko adierazpena, baita idatzizkoa eta multimodala ere barne hartzen ditu. Etapa honetan, produkzioak eguneroko gaiei buruzko testu labur eta errazak idaztea eta azaltzea ekarri behar du, garrantzi pertsonalekoak, sormenez, koherentziaz eta egokitasunez, eta hizkuntzaren erabilera diskriminatzailerik gabe. Produkzioak, hainbat formatu eta euskarritan, honako hauek barne har ditzake etapa honetan: deskribapen edo anekdota txiki bat azaltzea, mezu elektronikoko pertsonal sinpleak edo korrespondentzia formal erraz eta laburrekoak idaztea, aurkezpen formal edo argudiaketa erraz bat egitea, edo gertaerak, kontzeptuak, pentsamenduak, iritziak eta sentimenduak modu sinplean adieraziko dituzten testuak idaztea, tresna digital eta analogikoen bidez. Produkzioak ere badakar dokumentazio-iturri gisa Interneten informazioa bilatzea. Formatu multimodalean, produkzioak hainbat baliabide batera erabiltzea barne hartzen du (idazketa, irudia, grafikoak, taulak eta diagramak, soinua, keinuak, etab.), esanahia sortzeko, eta zereginaren eta horren premien arabera egokiena hautatzea eta aplikatzea.

Testugintzarekin lotutako jarduerak funtzio garrantzitsuak betetzen dituzte esparru pertsonalean, sozialean, hezitzailean eta profesionalean, eta horiei lotutako balio sozial eta zibiko zehatza dago. Zenbait euskarritako produkzioetan trebetasuna ez da modu naturalean eskuratzen. Aldiz, ikaskuntzaren emaitza da. Etapa honetan, produkzioak honako hauek ikastean oinarritzen dira: funtsezko alderdi formalak, kutsu linguistikoagoa, soziolinguistikoagoa eta pragmatikoagoa dutenak; erabilitako generoarekin lotutako itxaropen eta konbentzio ohikoenak; produkzio-tresnak; eta erabilitako euskarria. Produkzioa hobetzea ahalbidetzen duten estrategietan barne hartuta daude plangintza, autoebaluazioa eta koebaluazioa, atzeraelikadura, monitorizazioa, baliozkotzea eta konpentsazioa.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, KE2, STEM4, KD2, KPSII5, EK1, EK3 eta KAKK3.

3. Beste pertsona batzuekin gero eta autonomia handiagoaz elkarreraginean aritzea, kooperazio-estrategiak erabiliz, baliabide analogikoak eta digitalak baliatuz eta adeitasun-arauak errespetatuz komunikazio-helburu zehatzei erantzuteko.

Interakzioak bi parte-hartzaile edo gehiago inplikatzeko baten eraikuntza. Pertsonen arteko interakzioa hizkuntzaren jatorritzat hartzen da, eta pertsonen arteko zereginak, zeregin kooperatiboak eta transakzionalak biltzen ditu. Interakzioan sartuta daude hizkuntza-adeitasuna eta netiketa, komuni-

kazioaren hitzeko eta hitzik gabeko elementuak, eta, esaterako, plataforma birtualek ematen dituzten ingurune sinkrono edo asinkronoetako erregistro eta genero dialogiko bai ahozkoetarako, bai hitzekoetarako, bai muldimodaletarako egokitzapena. Hezkuntzako etapa honetan espero da ikasleek sareko beren ekintzak, presentzia eta agerikotasuna modu arduratsuan kudeatzea, eta interakzioek, laburrak eta errazak izan arren, eguneroko eta garrantzi pertsonaleko gaiei sormenez heltzea, eduki sexistaren erabilera identifikatuz eta baztertuz.

Konpetentzia espezifikoa hau funtsezkoa da ikaskuntzan. Izan ere, bildu egiten ditu hizkuntzen arteko transferentzien oinarriko estrategiak, kooperaziokoak, elkarrizketak hasi, mantendu edo amaitzekoak, hitz egiteko txandak laga eta hartzekoak eta galdetzeko estrategiak, argitzea edo errepikatzea eskatzeko helburuarekin. Gainera, hizkuntza-adeitasuna eta netiketa zuzentzen dituzten oinarriko arau eta printzipioak ikasi eta aplikatzeak herritartasun demokratikoan, arduratsuan, errespetuzkoan, seguruan eta aktiboan jarduteko prestatzen ditu ikasleak.

Konpetentzia espezifikoa hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK5, KE2, KD3, KPSII3 eta KAKK3.

4. Hizkuntza desberdinen arteko bitartekotza egitea eguneroko egoeretan, kontzeptuak azaltzera edo mezuak sinplifikatzera bideratutako estrategia eta ezagutza errazak erabiliz, informazioa modu eraginkor, argi eta arduratsuan transmititzeko.

Bitartekotza hizkuntzaren jarduera bat da, eta honetan datza: mezuak edo testuak ahoz edo idatziz azaltzea eta errazago ulertaraztea zenbait strategiaren bidez, hala nola birformulazioaren bidez. Bitartekotzan, ikasleek gizarte-eragile gisa jardun behar dute, eta beren ardua izango da zubiak sortzea eta mezuak modu dialogikoan eraikitzea, ez bakarrik hizkuntza desberdinen artean, baita hizkuntza beraren modalitate edo erregistroen artean ere.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, eta zehazkiago Atzerriko Bigarren Hizkuntza jakintzagaian, komunikazio-testuingurutik sortzen diren erronkak konpontzeko tresna gisa hizkuntzak duen rolean zentratzen da bitartekotza, nagusiki; espazio eta baldintza egokiak sortzen baititu komunikatzeko eta ikasteko eta esanahi berriak eraikitzeko eta ulertzeko. Horretarako, edukiak itzultzeko, analizatzeko, interpretatzeko eta partekatzeko baliabide konbentzionalak nahiz aplikazio edo plataforma birtualak erabil daitezke. Etapa honetan, mezuak edo testuak eguneroko gaiei buruzkoak izango dira, garrantzi pertsonalekoak.

Bitartekotzak ikasleen pentsamendu estrategikoaren garapena errazten du. Izan ere, ikasleei eskatzen die beren erreperatorioko trebetasun eta estrategia egokienak aukeratzea, komunikazio eraginkorra lortzeko. Gainera, informazioa trukatzeko ingurune kooperatiboak norberaren eta beste pertsona batzuen parte-hartzea errazten du. Era berean, eskura dauden baliabideak ezagutzea eta besteen motibazioa eta enpatia sustatzea eskatzen du, solaskideen motibazioak, ideiak eta inguruabar pertsonalak ulertuz eta errespetatuz, eta horiek norberarekin harmonizatuz. Horregatik, ikasleek enpatia, errespetua, espiritu kritikoa, pentsamendu sortzailea eta zentzu etikoa erakustea espero da, maila horretan bitartekotza egokia egiteko funtsezko elementu diren heinean.

Konpetentzia espezifikoa hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK5, KE2, KE3, STEM4, KPSII1 eta KPSII3.

5. Norberaren hizkuntza-errepertorioa mobilizatzea eta erabiltzea, errepertorio hori osatzen duten hizkuntzetako bakoitzaren funtzionamenduari buruzko gogoeta kritikoa eginez eta norberaren estrategiez eta ezagutzez jabetuz, betiere atzerriko hizkuntza ikasteko gaitasuna eta komunikazio-behar zehatzetarako erantzuna hobetzeko.

Hizkuntza-errepertorioaren erabilera eta haren funtzionamenduari buruzko gogoeta lotuta daude hizkuntzak eskuratzeko ikuspegi eleaniztunarekin. Ikuspegi eleaniztunak abiapuntu du ikasleek dakizkiten hizkuntzekin dituzten esperientziak oinarritzat baliagarriak dituztela hizkuntza berrien ikaskuntza zabalteko eta hobetzeko, eta lagundu egiten dietela beren hizkuntza-errepertorio eleaniztuna garatzeko eta

aberasteko, baita jakin-min eta sentsibilizazio kulturala ere. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, ikasleek hizkuntzei buruzko gogoeta horretan sakontzen dute eta beren errepertorio indibiduala hizkuntzen arteko harremanak ezartzen dituzte, haien arteko antzekotasunak eta desberdintasunak aztertuta, haiek osatzen dituzten hizkuntzetako ezagutzak eta estrategiak zabaltzeko. Horrela, hizkuntza berriak ikastea errazten da eta komunikaziorako konpetentzia hobetzen da. Hizkuntzei eta horien funtzionamenduari buruzko gogoetak berekin dakar ikasleek haien arteko erlazioak ulertzea, eta, horrez gain, hizkuntzaren eta komunikazioaren arloan dituzten indarrak eta gabeziak identifikatzen laguntzen du, norberaren ezagutze eta estrategiez jabetuz eta horiek esplizitu eginez. Ildo horretatik, berekin dakar, orobat, abian jartzea ziurgabetasunari aurre egiteko trebetasunak, eta helburuak lortzean edo erabakiak hartzean pertseberantzia eta ekimenaren zentzua garatzeko trebetasunak.

Gainera, hizkuntza bat baino gehiago ezagutzeak aukera ematen du gizartearen hizkuntza-aniztasuna alderdi aberasgarri eta positibotzat baloratzeko. Norberaren hizkuntza-errepertorioan eduki berriak eraikitze eta integratzeko gailu eta tresna analogikoak zein digitalak hautatu, konfiguratu eta aplikatzeak erraztu egin dezake beste hizkuntza batzuk ikastea eta hobetzea.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: KE2, KD2, KPSII1 eta KPSII5.

6. Atzerriko hizkuntzatik abiatuta, aniztasun linguistikoa, kulturala eta artistikoa modu kritikoan baloratzeko eta aniztasun horretara egokitzea, hizkuntzen eta kulturen arteko antzekotasunak eta desberdintasunak identifikatuz eta partekatuz, betiere kulturarteko egoeretan enpatiaz eta errespetuz jokatzeko.

Kulturartekotasunak berekin dakar gizartearen aniztasun linguistikoa, kulturala eta artistikoa esperimentatzea, eta aniztasun hori analizatzea eta horri etekina ateratzea. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, kulturartekotasunak, besteekin elkar ulertzea errazten duenez, arreta berezia merezi du, ikasleen esperientziaren parte izan dadin, eta aniztasun horri buruz duten pertzepzioa estereotipoek desitxuratu ez dezaten eta diskriminazio mota jakin batzuen jatorri izan ez dadin. Aniztasunarekiko balorazio kritikoak eta egokitzapenak ikasleei aukera eman behar die kulturarteko egoeretan enpatiaz eta errespetuz jokatzeko.

Aniztasunaren kontzientziak kultura desberdinak erlazionatzeko bidea ematen die ikasleei. Gainera, sentsibilitate artistiko eta kultural bat garatzea errazten du, baita beste kultura batzuetako pertsonekin harremanak ezartzeko estrategia ugari identifikatzeko eta erabiltzeko gaitasuna ere. Etapa honetan, Atzerriko Bigarren Hizkuntzaren irakaskuntzan Europako programen esparruan planteatzen daitezkeen kulturarteko egoerek ikasleei aukera ematen diete esperientzia, ideia, gizarte eta kultura berrietara zabaltzeko, desberdina denarekiko interesa erakutsiz; norberaren ikuspegia eta balio kulturalen sistema bera erlatibizatzen; eta edozein motatako diskriminazio edo estereotipoen indartzea oinarri duten jarretatik urruntzeko eta horiek saihesteko, atzerriko hizkuntzaren konpetentzia-mailatik eratorritako mugak gorabehera. Kultura partekatua eta iraunkortasunarekin eta balio demokratikoekin konprometitutako herritartasuna garatzera bideratuta dago hori guztia.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK5, KE3, KPSII1, KPSII3, HK3 eta KAKK1.

## EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

I. eta II. mailak	III. eta IV. mailak
<b>1. konpetentzia espezifikoa</b>	
1.1. Zenbait euskarritan, argi eta hizkuntza estandarrean adierazitako ahozko testu eta testu idatzi eta multimodal oso labur eta errazen zentzu orokorra eta informazio espezifikoa eta esplizitua interpretatzea eta aztertzea, laguntza bisualarekin edo testuinguruko laguntzarekin eta berriro entzuteko edo berrespena eskatzeko aukerarekin.	1.1. Zenbait euskarritan, argi eta hizkuntza estandarrean adierazitako ahozko testu eta testu idatzi eta multimodal labur eta errazen zentzu orokorra eta informazio garrantzitsua interpretatzea eta aztertzea, laguntza bisualarekin edo testuinguruko laguntzarekin eta berriro entzuteko edo berrespena eskatzeko aukerarekin.

2023ko uztailaren 31, astelehena

I. eta II. mailak	III. eta IV. mailak
1.2. Komunikazio-egoerarako estrategia eta ezagutza egokienak lagunduta hautatzea, antolatzea eta aplikatzea, testuen zentzu orokorra, funtsezko informazioa eta xehetasun garrantzitsuenak ulertzeko, eta hitzik gabeko elementuak interpretatzeko.	1.2. Komunikazio-egoerarako estrategia eta ezagutza egokienak hautatzea, antolatzea eta aplikatzea, testuen zentzu orokorra, funtsezko informazioa eta xehetasun garrantzitsuenak ulertzeko; esanahiak inferitzea eta hitzik gabeko elementuak interpretatzea.
	1.3. Informazioa bilatzeko, hautatzeko eta kontrastatzeko oinarriko estrategiak erabiltzea, baliozkotasun-, kalitate-, gaurkotasun- eta fidagarritasun-irizpideak aplikatuz, eta jabetza intelektuala erregulatzen duten egile-lizentziak errespetatuz informazio hori kudeatzeko.
<b>2. kompetentzia espezifikoak</b>	
2.1. Komunikazio-egoerara egokitutako testu oso laburrak, oso errazak, alde zuzenetik prestatuak, egituratuak eta ulergarriak ahoz adieraztea behar besteko zuzentasunez, ahoskeraz eta intonazioz, zenbait euskarritan deskribatzeko, kontatzeko eta informatzeko, betiere hitzeko baliabideak eta hitzik gabekoak modu gidatuan erabiliz eta hizkuntzaren erabilera eraginkorra eta etikoa eginez.	2.1. Komunikazio-egoerara egokitutako testu laburrak, errazak, alde zuzenetik prestatuak, egituratuak eta ulergarriak ahoz adieraztea behar besteko zuzentasunez, ahoskeraz eta intonazioz, zenbait euskarritan deskribatzeko, kontatzeko eta informatzeko, betiere hitzeko baliabideak eta hitzekoak ez direnak modu gidatuan erabiliz eta hizkuntzaren erabilera eraginkorra eta etikoa eginez.
2.2. Testu oso laburrak eta errazak, ulergarriak, egitura argikoak eta oinarriko lexikoa izango dutenak antolatzea eta idaztea, koherentziaz, kohesioz eta proposatutako komunikazio-egoerara egokituz, ezarritako jarraibideak betez, banaka edo modu kooperatiboan, tresna analogiko eta digitalen bidez.	2.2. Testu laburrak eta errazak, ulergarriak, egitura argikoak eta erabilera orokorreko lexikoa izango dutenak antolatzea eta idaztea, koherentziaz, kohesioz eta proposatutako komunikazio-egoerara egokituz, ezarritako jarraibideak betez, banaka edo modu kooperatiboan, tresna analogiko eta digitalen bidez.
2.3. Lagunduta, testuak berrikusteko eta testuen prestaketan kooperatzeko oinarriko ezagutzak eta estrategiak hautatzea, antolatzea eta aplikatzea, zereginaren eta beharren arabera baliabide analogiko edo digital egokienak erabiliz.	2.3. Lagunduta, testuak berrikusteko eta testuen prestaketan kooperatzeko ezagutzak eta erabilera orokorreko estrategiak hautatzea, antolatzea eta aplikatzea, zereginaren eta beharren arabera baliabide analogiko edo digital egokienak erabiliz, herritartasun digital zibikoan eta gogoetatsuan jardunez, jabetza intelektuala errespetatuz eta plagioa saihestuz.
<b>3. kompetentzia espezifikoak</b>	
3.1. Egoera interaktiboak, sinkronoak edo asinkronoak, oso labur eta errazak planifikatzea eta horietan parte hartzea, zenbait baliabidean oinarrituz (hala nola errepikapena, erritmo mantsoa edo hitzik gabeko hizkuntza), eta enpatia eta hizkuntza-adeitasunarekiko errespetua erakutsiz, baita solaskideen komunikazio-beharrekiko ere, hizkuntzaren erabilera diskriminatzaile eta estereotipo oro baztertuz.	3.1. Egoera interaktiboak, sinkronoak edo asinkronoak, laburrak eta errazak planifikatzea eta horietan parte hartzea eta aktiboki kolaboratzea, zenbait baliabidean oinarrituz (hala nola errepikapena, erritmo mantsoa edo hitzik gabeko hizkuntza), eta enpatia eta hizkuntza-adeitasunarekiko eta netiketa-rekiko errespetua erakutsiz, baita solaskideen komunikazio-beharrekiko ere, hizkuntzaren erabilera diskriminatzaile eta estereotipo oro baztertuz.
3.2. Lagunduta eta hurbileko inguruneetan, komunikazioa hasteko, mantentzeko eta amaitzeko, hitza hartzeko eta lagatzeko, eta argibideak eta azalpenak eskatzeko eta formulatzeko oinarriko estrategia egokiak hautatzea, antolatzea eta erabiltzea.	3.2. Komunikazioa hasteko, mantentzeko eta amaitzeko, hitza hartzeko eta lagatzeko, eskaintzak, iradokizunak, argibideak eta azalpenak eskatzeko eta formulatzeko, birformulatzeko, alderatzeko eta kontrastatzeko, eta laburbiltzeko oinarriko estrategia egokiak hautatzea, antolatzea eta erabiltzea.
3.3. Plangintza- eta kudeaketa-estrategiak hautatzea eta aplikatzea, baita estrategia kooperatibo errazak eta konplexuak ere, talde-lanean esleitutako erantzukizun indibidualak bere gain hartuz eta sortzen diren gatazkak kudeatuz.	3.3. Plangintza- eta kudeaketa-estrategiak hautatzea eta aplikatzea, baita estrategia kooperatibo errazak eta konplexuak ere, talde-lanean esleitutako erantzukizun indibidualak bere gain hartuz eta sortzen diren gatazkak kudeatuz.

2023ko uztailaren 31, astelehena

I. eta II. mailak	III. eta IV. mailak
<b>4. kompetentzia espezifikoa</b>	
4.1. Eguneroko egoera errazetan testu, kontzeptu eta komunikazio oso labur eta errazak inferitzea eta azaltzea, solaskideekiko eta erabilitako hizkuntzekiko errespetua eta enpatia erakutsiz, eta beren hurbileko ingurunean elkar ulertzeko eta aditzeko arazoak konpontzen parte hartzeko interesa azalduz, hainbat baliabide eta euskarri baliatuz.	4.1. Eguneroko egoeretan testu, kontzeptu eta komunikazio labur eta errazak inferitzea eta azaltzea, solaskideekiko eta erabilitako hizkuntzekiko errespetua eta enpatia erakutsiz, eta beren ingurunean elkar ulertzeko eta aditzeko arazoak konpontzen parte hartzeko interesa azalduz, hainbat baliabide eta euskarri baliatuz.
4.2. Lagunduta, zubiak sortzen eta komunikazioa errazten lagunduko duten eta informazioa ulertzeko eta sortzeko balioko duten oinarrizko estrategiak, komunikazio-asmoetara egokituak, aplikatzea, baliabide eta laguntza analogikoak edo digitalak erabiliz, unean uneko beharren arabera.	4.2. Zubiak sortzen eta komunikazioa errazten lagunduko duten eta informazioa ulertzeko eta sortzeko balioko duten oinarrizko estrategiak, komunikazio-asmoetara egokituak, aplikatzea, baliabide eta laguntza analogikoak edo digitalak erabiliz, unean uneko beharren arabera.
<b>5. kompetentzia espezifikoa</b>	
5.1. Zenbait hizkuntza alderatzea eta haien arteko antzekotasunak eta desberdintasunak kontrastatzea, haien funtzionamenduari buruz gogoeta eginez, lagunduta.	5.1. Zenbait hizkuntza alderatzea eta haien arteko antzekotasunak eta desberdintasunak kontrastatzea, haien funtzionamenduari buruz gero eta autonomia handiagoaz gogoeta eginez.
5.2. Atzerriko hizkuntzan eraginkortasunez komunikatzeko eta berori ikasteko gaitasuna hobetzeko, oinarrizko estrategiak eta ezagutzak erabiltzea eta bereiztea, beste parte-hartzaile batzuen eta euskarri analogiko eta digitalen laguntzaz.	5.2. Atzerriko hizkuntzan eraginkortasunez komunikatzeko eta berori ikasteko gaitasuna hobetzeko erabilera orokorreko estrategiak eta ezagutzak erabiltzea eta bereiztea, beste parte-hartzaile batzuen eta euskarri analogiko eta digitalen laguntzaz.
5.3. Atzerriko hizkuntza ikasteko aurrerapenak eta zailtasunak identifikatzea eta erregistratzea, zailtasun horiek gainditzeko estrategia eraginkorrenak lagunduta hautatuz eta autoebaluazioko eta koebaluazioko oinarrizko estrategiak eta tresnak erabiliz, hala nola Hizkuntzen Europako Portfolioan (HEP) edo ikaskuntza-eguneroko batean proposatutakoak, aurrerapenak esplizitatuz eta partekatuz.	5.3. Atzerriko hizkuntza ikasteko aurrerapenak eta zailtasunak erregistratzea eta analizatzea, zailtasun horiek gainditzeko eta haren ikaskuntza finkatzeko estrategia eraginkorrenak hautatuz, ikaskuntza bera planifikatzeko eta autoebaluazioa eta koebaluazioa egiteko erabilera orokorreko estrategiak eta tresnak erabiliz, hala nola Hizkuntzen Europako Portfolioan (HEP) edo ikaskuntza-eguneroko batean proposatutakoak, aurrerapen eta zailtasun horiek esplizitatuz eta partekatuz.
<b>6. kompetentzia espezifikoa</b>	
6.1. Enpatiaz eta errespetuz jokatzeko kulturarteko egoeretan, hala nola <i>eTwinning</i> plataformak emandakoetan, hizkuntzen eta kulturen arteko loturak eraikiz eta eguneroko komunikazio-testuinguruetan diskriminazio, aurreiritzi eta estereotipo oro baztertuz.	6.1. Behar bezala, enpatiaz eta errespetuz jokatzeko kulturarteko egoeretan, hala nola, <i>eTwinning</i> plataformak emandakoetan, hizkuntzen eta kulturen arteko loturak eraikiz eta eguneroko komunikazio-testuinguruetan diskriminazio, aurreiritzi eta estereotipo oro baztertuz.
6.2. Atzerriko hizkuntza hitz egiten den herrialdeek berezkoa duten aniztasun linguistikoa, soziokulturala eta artistikoa atseginerako eta aberastasun pertsonalerako iturri gisa onartzea eta horretara egokitzea, iraunkortasuna eta demokrazia sustatzen dituzten elementu kulturalak eta linguistikoak partekatzeko interesa erakutsiz.	6.2. Atzerriko hizkuntza hitz egiten den herrialdeek berezkoa duten aniztasun linguistikoa, soziokulturala eta artistikoa atseginerako eta aberastasun pertsonalerako iturri gisa kritikoki baloratzea eta horretara egokitzea, kultura partekatua eta iraunkortasunarekin eta balio demokratikoekin konprometitutako herritartasuna garatzen lagunduz.
	6.3. Aniztasun linguistikoa, kulturala eta artistikoa azaltzeko eta balioesteko estrategiak aplikatzea, balio ekosozialak eta demokratikoak kontuan hartuz eta zuzentasunaren, ekitatearen eta berdintasunaren printzipioak errespetatuz.

2023ko uztailaren 31, astelehena

## OINARRIZKO JAKINTZAK

I. eta II. mailak
<b>A. Komunikazioa.</b>
Ahozko, idatziko eta testu multimodal oso labur eta oso errazen ulermena, produkzioa eta koprodukzioa planifikatzeko, egikaritzeko, kontrolatzeko eta konpontzeko oinarrizko estrategiak.*
Eguneroko egoera errazetan bitartekotza-jarduerak detektatu eta horietan kolaboratu ahal izateko oinarrizko ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak.*
Komunikazio-esparrura eta -testuingurura egokitutako komunikazio-funtzio oso oinarrizkoak: agurtzea, despeditzea, besteak aurkeztea eta norbera aurkeztea; pertsonak, objektuak eta lekuak deskribatzea; gertaerak denboran kokatzea; objektuak, pertsonak eta lekuak espazioan kokatzea; informazio pertsonala eta eguneroko gai errazei buruzkoa eskatzea eta trukatzea; laguntza, proposamenak edo iradokizunak eskaintzea; partzialki adieraztea gustua, lehentasuna edo interesa eta oso oinarrizko emozioak; iraganeko gertaerak kontatzea; egungo egoerak deskribatzea.*
Testuinguru-ereduak eta diskurtso-generoak, oso oinarrizkoak eta eguneroko erabilerakoak, ahozko, idatziko eta testu multimodal oso labur eta oso sinpleak ulertzeko, produzitzeko eta koproduzitzeko, eta eraldatzeko, ohiko eta eguneroko gaiei buruzkoak, garrantzi pertsonalekoak eta esperientziatik hurbil daudenak, pertsonen arteko harremanen eta ikaskuntzaren esparruetan berezkoak direnak: testuinguruaren ezaugarriak eta ezagutza (parte-hartzaileak eta egoera), testuinguruak sortutako itxaropenak; generoaren eta egituraren araberako antolaketa eta egituraketa, funtzio testuala eta egitura.*
Oso oinarrizko hizkuntza-unitateak eta hauei lotutako esanahiak, hala nola honako hauen adierazpena: entitatea eta bere propietateak, kantitatea eta nolakotasuna, espazioa eta erlazio espazialak, denbora eta denbora-erlazioak, baieztapena, ukapena, galdera eta harridura, ohiko erlazio logikoak.*
Ikasleentzat interesgarria den oinarrizko lexikoa, honako hauei buruzkoa: identifikazio pertsonala, pertsonen arteko harremanak, hurbileko lekuak eta inguruneak, aisia eta denbora librea, eguneroko bizitza, osasuna eta jarduera fisikoa, etxebizitza eta etxea.*
Oinarrizko soinu-, azentu-, erritmo- eta intonazio-patroiak, eta patroiei lotutako esanahiak eta komunikazio-asmo orokorrak.*
Formatuei, patroiei eta elementu grafikoei lotutako oso oinarrizko konbentzio ortografikoak eta komunikazio-esanahiak eta -asmoak.*
Oinarrizko elkarrizketa-konbentzioak eta -strategiak, formatu sinkronoan edo asinkronoan, komunikazioa hasteko, mantentzeko eta amaitzeko, hitza hartu eta lagatzeko, argibideak eta azalpenak eskatu eta emateko, etab.*
Informazioa bilatzeko, hautatzeko eta kudeatzeko oinarrizko estrategiak eta baliabide analogiko eta digitalak.*
Egileak identifikatzeko, eta kontsultatutako iturrien eta erabilitako edukien baliozkotasuna, kalitatea, gaurkotasuna eta fida-garritasuna ebaluatzeko estrategiak.
Ulermen, produkzio eta koprodukzioarako -ahozkoa, idatzikoa eta multimodalainarrizko tresna analogikoak eta digitalak.*
<b>B. Eleaniztasuna.</b>
Autokonfiantza. Errorea, hobetzeko tresna eta konpontzeko proposamen gisa.*
Oinarrizko komunikazio-behar jakin bati eraginkortasunez eta modu ulergarrian erantzuteko estrategiak eta teknikak, atzerriko hizkuntzan eta berezko hizkuntza-errepertorioko hizkuntzetan kompetentzia-mailaren ondoriozko mugen gainetik.*
Ikasteko baliabideak eta hizkuntza-unitateak (lexikoa, morfosintaxia, soinu-patroiak, etab.) identifikatu, antolatu, atxiki, berreskuratu eta sormenez erabiltzeko oinarrizko estrategiak, norberaren hizkuntza-errepertorioa osatzen duten hizkuntzen eta barietateen konparaziotik abiatuta.*
Autoebaluaziorako eta koebaluaziorako oinarrizko estrategiak eta tresnak, analogikoak eta digitalak, indibidualak eta kooperatiboak, atzerriko hizkuntza ikasteko aurrerapenak eta zailtasunak erregistratzeko. Hizkuntzen Portfolio Europearra (HPE).*
Komunikazioari, hizkuntzari, ikaskuntzari eta komunikatzeko eta ikasteko tresnei buruzko enuntziatuak ulertzeko oinarrizko lexikoa eta esamoldeak (metahizkuntza).*
Hizkuntzak konparatzeko oinarrizko estrategiak, atzerriko hizkuntzaren elementuetatik eta beste hizkuntza batzuetatik abiatuta: jatorria eta ahaidetasunak.*
Estrategia kooperatibo errazak eta konplexuak, eta talde-lanean esleitutako banakako erantzukizunak hartzeko estrategiak. Gatazken kudeaketa.*



2023ko uztailaren 31, astelehena

I. eta II. mailak
<b>C. Kulturartekotasuna.</b>
Atzerriko hizkuntza pertsonen arteko eta nazioarteko komunikabide gisa, informazio-iturri gisa eta norbera aberasteko tresna gisa.*
Atzerriko hizkuntzako hitzuneekin edo ikasleekin, zenbait bitarteko bidez, komunikazio-trukeak egiteko interesa eta ekimena, betiere ahoskera, erritmo eta intonazio egokiaz, oinarrizko konbentzio ortografikoak errespetatuz eta testuen aurkezpena zainduz.*
Atzerriko hizkuntzak berezkoak dituen oinarrizko patroikulturalak.*
Eguneroko bizitzari, bizi-baldintzei eta pertsonen arteko harremanei buruzko oinarrizko alderdi soziokulturalak eta soziolinguistikoak, genero-analitik abiatuta; oinarrizko konbentzio sozialak; hitzik gabeko hizkuntza, hizkuntza-adeitasuna eta netiketa; atzerriko hizkuntza hitz egiten den herrialdeen berezko lurralde-banaketa, kultura, ohiturak eta balioak.*
Hizkuntza-, kultura- eta arte-aniztasuna ulertzeko eta balioesteko oinarrizko estrategiak, balio ekosozialak eta demokratikoak kontuan hartuta.
Hitzezko eta hitzik gabeko hizkuntzaren erabilera diskriminatzaileak hautemateko eta horien aurrean jarduteko oinarrizko estrategiak.*
Atzerriko hizkuntza munduan eta Euskal Herrian, eta horrek euskarari duen eragina.
Hizkuntzen egoera Europan. Hizkuntza ofizialak, ez-ofizialak, menderatzaileak, menderatuak. Hizkuntza Gutxituen edo Eskualdekoen Europako Gutuna.

III. eta IV. mailak
<b>A. Komunikazioa.</b>
Ahozko, idatzizko eta testu multimodal labor eta errazen ulermena, produkzioa eta koprodukzioa planifikatzeko, egikaritzeko, kontrolatzeko eta konpontzeko erabilera orokorreko estrategiak.*
Eguneroko egoeretan bitartekotza-jarduerak detektatu eta horietan kolaboratu ahal izateko oinarrizko ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak.*
Komunikazio-esparrura eta -testuingurura egokitutako oinarrizko komunikazio-funtzioak: agurtzea, despeditzea, besteak aurkeztea eta norbera aurkeztea; pertsonak, objektuak eta lekuak deskribatzea; gertaerak denboran kokatzea; objektuak, pertsonak eta lekuak espazioan kokatzea; informazio pertsonala eta eguneroko gaiei buruzkoak eskatzea eta trukatea; instrukzioak eta aginduak ematea eta eskatzea; laguntza, proposamenak edo iradokizunak eskaintzea; gustua edo interesa eta oinarrizko emozioak partzialki adieraztea; iraganeko gertaerak kontatzea; egungo egoerak deskribatzea eta etorkizuneko gertaerak adieraztea; iritzia, posibilitatea, ahalmena, betebeharra eta debekua adieraztea; ziurgabetasuna eta zalantza adieraztea.*
Testuinguru-ereduak eta diskurtso-generoak, oinarrizkoak eta eguneroko erabilerakoak, ahozko, idatzizko eta testu multimodal labor eta sinpleak ulertzeko, produzitzeko eta koproduzitzeko, eta eraldatzeko, ohiko eta eguneroko gaiei buruzkoak, garrantzi pertsonalekoak eta esperientziatik hurbil daudenak, pertsonen arteko harremanen, ikaskuntzaren, komunikabideen eta fikzioaren esparruetan berezkoak direnak: testuinguruaren ezaugarriak eta ezagutza (parte-hartzaileak eta egoera), testuinguruak sortutako itxaropenak; generoaren eta egituraren arabeko antolaketa eta egituraketa, funtzio testuala eta egitura.*
Oinarrizko hizkuntza-unitateak eta hauei lotutako esanahiak, hala nola, honako hauen adierazpena: entitateak eta bere propietateak, kantitatea eta nolakotasuna, espazioa eta erlazio espazialak, denbora eta denbora-erlazioak, baieztapena, ukapena, galdera eta harridura, ohiko erlazio logikoak.*
Ikasleentzat interesgarria den erabilera orokorreko lexikoa, honako hauekin lotutakoa: identifikazio pertsonala, pertsonen arteko harremanak, hurbileko leku eta inguruneak, aisia, eguneroko bizitza, osasuna eta jarduera fisikoa, etxebizitza eta etxea, klima eta ingurune naturala, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak.*
Oinarrizko soinu-, azentu-, erritmo- eta intonazio-patroiak, eta patroik horiei lotutako esanahiak eta komunikazio-asmorokorrak.*
Formatuei, patroiei eta elementu grafikoei lotutako oinarrizko konbentzio ortografikoak eta komunikazio-esanahiak eta -asmok.*
Oinarrizko konbentzioak eta elkarrizketa-estategiak, formatu sinkronoan edo asinkronoan, komunikazioa hasteko, mantentzeko eta amaitzeko, hitza hartzeko eta lagatzeko, eskaintzak, iradokizunak, argibideak eta azalpenak eskatzeko eta emateko, birformulatzeko, alderatzeko eta kontrastatzeko, laburbiltzeko, etab.*

2023ko uztailaren 31, astelehena

<b>III. eta IV. mailak</b>
Informazioa bilatzeko, hautatzeko eta kudeatzeko erabilera orokorreko estrategiak eta baliabide analogiko eta digitalak.*
Jabetza intelektualarekiko eta egile-eskubideekiko errespetua, eta kontsultatutako iturrien eta erabilitako edukien baliozkotasuna, kalitatea, gaurkotasuna eta fidagarritasuna ebaluatzeko estrategiak.*
Ulermen, produkzio eta koprodukzioarako —ahozkoa, idatzizkoa eta multimodalatresna analogiko eta digitalak; eta hezkuntzaren esparruko interakzio, kooperazio eta kolaborazioarako plataforma birtualak (ikasgela birtualak, bideokonferentziak, kolaborazioko tresna digitalak...), atzerriko hizkuntzako hitzuneekin edo ikasleekin ikasteko, komunikatzeko eta proiektuak modu seguruan garatzeko.*
<b>B. Eleaniztasuna eta ikaskuntzari buruzko gogoeta.</b>
Autokonfiantza eta ekimena. Errorea, ikaskuntza-prozesuaren parte gisa.*
Komunikazio-behar jakin bati eraginkortasunez eta gero eta arintasun, egokitasun eta zuzentasun handiagoaz erantzuteko estrategiak eta teknikak, atzerriko hizkuntzan eta berezko hizkuntza-errepertorioko hizkuntzetan konpetentzia-mailak eragindako mugen gainetik.*
Ikasteko baliabideak eta hizkuntza-unitateak (lexikoa, morfosintaxia, soinu-patroiak, etab.) identifikatu, antolatu, atxiki, berreskuratu eta sormenez baliatzeko erabilera orokorreko estrategiak, norberaren hizkuntza-errepertorioa osatzen duten hizkuntzen eta barietateen konparaziotik abiatuta.*
Autoebaluazioarako, koebaluazioarako eta autorreparazioarako erabilera orokorreko estrategiak eta tresnak, analogikoak eta digitalak, indibidualak eta kooperatiboak, atzerriko hizkuntza ikasteko aurrerapenak eta zailtasunak erregistratzeko. Hizkuntzen Portfolio Europarra (HPE).*
Komunikazioari, hizkuntzari, ikaskuntzari eta komunikazio- eta ikaskuntza-tresnei (metahizkuntzari) buruzko enuntziatuak ulertzeko erabili ohi diren lexikoa eta esamoldeak.*
Atzerriko hizkuntzaren elementuetatik eta beste hizkuntza batzuetatik abiatuta hizkuntzak konparatzeko estrategiak: jatorria eta ahaidetasunak.*
Estrategia kooperatibo errazak eta konplexuak, eta talde-lanean esleitutako banakako erantzukizunak hartzeko estrategiak. Gatazken kudeaketa.*
<b>C. Kulturartekotasuna.</b>
Atzerriko hizkuntza pertsonen arteko eta nazioarteko komunikabide gisa, informazio-iturri gisa eta norbera aberasteko tresna gisa.*
Atzerriko hizkuntzako hitzuneekin edo ikasleekin, zenbait bitarteko bidez, komunikazio-trukeak egiteko interesa eta ekimena, betiere ahoskera, erritmo eta intonazio egokiaz, oinarrizko konbentzio ortografikoekiko errespetuaz eta arretaz testuen aurkezpenean.*
Atzerriko hizkuntzak berezkoak dituen oinarrizko patroikulturalak.*
Eguneroko bizitzari, bizi-baldintzei eta pertsonen arteko harremani buruzko oinarrizko alderdi soziokulturalak eta soziolinguistikoak, genero-analitik abiatuta; oinarrizko konbentzio sozialak; hitzik gabeko hizkuntza, hizkuntza-adeitasuna eta netiketa; atzerriko hizkuntza hitz egiten den herrialdeen berezko lurralde-banaketa, kultura, ohiturak eta balioak.*
Hizkuntza-, kultura- eta arte-aniztasuna ulertzeko eta balioesteko erabilera orokorreko estrategiak, balio ekosozialak eta demokratikoak kontuan hartuta.*
Hitzezko eta hitzik gabeko hizkuntzaren erabilera diskriminatzaileak hautemateko eta horien aurrean jarduteko erabilera orokorreko estrategiak.*
Literatura-testua eta irakurketa atsegin-iturritzat hartzea, adierazpen artistiko eta kulturaletara hurbiltzeko eta hizkuntza eta norbera aberasteko.
Literatura-testuak dramatizatzeko, birsortzeko eta errezeitatzeko estrategia errazak.
Atzerriko hizkuntza munduan eta Euskal Herrian, eta horrek euskarari duen eragina.
Hizkuntzen egoera Europan. Hizkuntza ofizialak, ez-ofizialak, menderatzaileak, menderatuak. Hizkuntza Gutxituen edo Eskualdekoen Europako Gutuna.